

2015

OKENDO KULTUR ETXEA

**donostia**kultura.com

2015. urtea oso ona izan zen Okendo Kultur Etxean, antolatutako ekitaldiak, erabiltzaileen asistentzia eta elkarteekin egindako elkarlana kontuan hartuta.

Erakusketei dagokienez, urtea **Primitivo y Contemporáneo** erakusketarekin hasi zen. Jorge Oteiza, Jose Luis Zumeta, Eduardo Chillida... euskal artista garaikideen obrak afrikar, ozeaniar, himalaiar edo amerindiar gizartearen artelan tradizionalarekin konparatu zituen.

Ondoren, Massimo Vignelli diseinatzaile atemporalak omenduz, **Timeless** erakusketa izan zen Okendoko erakusketa aretoan. Eta beste hainbat: **Basque Style** euskal modaren erakusketa, **Surf, zibilizazio eta barbariea** Surfifestibalaren barruan, **Krzysztof Kieslowski** zinegilearen ingurukoa eta **Iberia FX** zine espainiarraren efektu berezien ingurukoak ikusi ahal izan ziren, besteak beste.

Bestetik, Areto Zaharrean tokiko artistentzat tarteak izan zituen: Javier Abaden **Begiradak material**, Laura San Juanen **Action Painting**, Elisa Vea Keating artistaren **Soil** eta urte bukaeran Antxon Ostolazaren **Olioa egur gainean**.

Erakusketen atalarekin amaitzeko, ikasgai magistrak garrantzia eman zitzaien eta hiler bat antolatu zen, honako gonbidatuekin: **José Zugasti, Iñaki Alvarez, Ana Nosowicz, María Eugenia Sancho, Ianire Soraluze, Aritz Kabe...**

Urteroko zikloei lotuta, **María Dueñas** idazle arrakastatsua izan zen **Literaktumen** eta hitzaldian aretoa lepo bete zen. Nabarmentzekoak ere **Poltsiko Antzerkia** eta **Musikagelako kontzertuak**, auzoko tabernak eta lokalak girotu baitzituzten.

Hurrei zuzendutako programazioak harrera ona izan zuen Okendo Kultur Etxean, aipatzekoak, Borobil Teatroaren **On Egin** antzezlanak, Roberto White-en **Criaturas Particulares**, **Eriz Magoa**, **Tomax**en abenturak...

Hiriko elkarte eta taldeekin egindako elkarlana goraipatzekoa da, hainbat alorretan burutu ziren egitasmoen ezinbesteko lagun. Beraiei lanari esker, hainbat ziklo eta hitzaldi antolatu ziren, hala nola, **Osasun Astea, Mendia eta Natura Zikloa, Ekologia Jardunaldiak, Xakobeotar Jardunaldiak** eta **Eskualdeen Etxeen Bilerak**.



Primitivo & garaikidea



Masterclass, Iñaki Alvarez




Literaktum, María Dueñas

Beste ekitaldiei dagokienez, **Doluaren Bidetik-Doluari buruzko III. Hitzaldi zikloa** antolatu zen, **Gipuzkoako Historialarien Jardunaldiak**, **SEO Birdlife** elkartearen hitzaldiak eta abar...

Gros auzoko jaietan eta ospakizunetan, Okendo Kultur Etxeak parte-hartze eraginkorra erakutsi zuen, berriro. Nabarmentzekoak, Groseko jaietako kale antzerkia, Sagueseko San Juan sua, San Tomasak, Olatu Talka...

**Zinearen** inguruan, **Bideo-forum alemaniarra** azpimarratu behar, hileroko kalitate handiko film alemaniarrek jatorrizko bertsioan ikusteko proposamena egin baitzigun eta, bestetik, ingeles hizkuntza zabaltzeko jarduerak interesgarriak: *English meeting after introductory screening*.

**Liburutegia, KZ Gunea, Gaztelekua/Hautxokoa eta Plus 55** zerbitzuek funtzionamendu maila ona mantendu zuten 2015ean, bai eskaini zuten arretagatik, baita proposatu zituzten jardueren arrakastagatik ere. Halaber, azpimarratzekoa da, kultur etxearekin hartu-emanetan izaera irekia eta adeitsua erakutsi zutela eta elkarlanean aritzeko prest agertu direla beti.



*Timeless*, Massimo Vignelli



Zipotz jaiak

## DATUAK

| JARDUERAK                       |         |                |
|---------------------------------|---------|----------------|
|                                 | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| <b>GUZTIRA</b>                  | 444     | 91.139         |
| Antzerkia                       | 18      | 2.736          |
| Bideoa eta Zinea                | 38      | 2.127          |
| Musika                          | 19      | 4.712          |
| Hitzaldiak                      | 126     | 9.502          |
| Ikastaroak eta tailerrak        | 5       | 90             |
| Erakusketak                     | 17      | 66.638         |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 125     | 2.192          |
| Aretoen alokairuak              | 2       | 145            |
| Liburutegiko jarduerak          | 90      | 2.531          |
| Besterik                        | 4       | 466            |
| <b>ZERBITZUAK</b>               |         |                |
|                                 | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| <b>GUZTIRA</b>                  | 442     | 166.082        |
| Liburutegiko bisitariak         |         | 139.470        |
| Hautxokoa                       | 152     | 6.044          |
| Gaztelekua                      | 162     | 6.022          |
| Plus 55                         | 85      | 5.888          |
| Kzgunea                         |         | 8.223          |
| IT Txartela                     | 43      | 435            |

## PRESTAKUNTZA EMAKUMEAK

|                      | GUZTIRA |                | Euskeraz |                | Gaztelaniaz |                |
|----------------------|---------|----------------|----------|----------------|-------------|----------------|
|                      | Kopurua | Erabiltzaileak | Kopurua  | Erabiltzaileak | Kopurua     | Erabiltzaileak |
| <b>GUZTIRA</b>       | 64      | 1.086          | 12       | 123            | 52          | 963            |
| 2014/2015 ikastaroak | 32      | 540            | 6        | 60             | 26          | 480            |
| 2015/2016 ikastaroak | 32      | 546            | 6        | 63             | 26          | 483            |

## PRESTAKUNTZA GIZONAK

|                      | GUZTIRA |                | Euskeraz |                | Gaztelaniaz |                |
|----------------------|---------|----------------|----------|----------------|-------------|----------------|
|                      | Kopurua | Erabiltzaileak | Kopurua  | Erabiltzaileak | Kopurua     | Erabiltzaileak |
| <b>GUZTIRA</b>       | 64      | 273            | 12       | 33             | 52          | 240            |
| 2014/2015 ikastaroak | 32      | 135            | 6        | 15             | 26          | 120            |
| 2015/2016 ikastaroak | 32      | 138            | 6        | 18             | 26          | 120            |

Bisitariak GUZTIRA: **226.139**